

TXOMIN ITURBEREN HERIOTZA

Txomin, gogoan zaitugu!

Fuskal Errefuxiatu Politikoaren Batzordeak otsailak 27an bere abertirik milaka kilometrotara istripuz hildako Txomin Iturbe omendu nahi du.

Fuskal Herri Langilearen eskubide nazional eta sozialen defendatzaile nekazaria, Txomin Iturbe Nazio Askapenerako Fuskal Mugimendunaren partaidea izateagatik Ipar Fuskal Herrian errefuxiatzera behartua izan zen. Geroztik, herbestearen min eta gogortasunak eta gure herriaren etsaien jazarpenak jasan zituen bereziki Estatu espainiarren mertzenari taldeek, frantses eta espainiar politikariek bezik zituzten, bai bera, bai familia eta lagunak, errepresioaz eta estatu terrorismoaz kolpatzeko.

Axilolarik, konfinaturik, gartzelaturik, deportaturik, Txomin Iturbe ez zuen sekulan amore eman. Abertzale zintzo eta sutsu bezala burua tinko atxiki zuen, nonahi gure herriaren interes eta xedeak defendatuz.

Baina istripu baten halabeharria frantziar eta espainiar Estatu aparailuek baino gehiago ahal izan du eta adiskidea, lagun mina kendu diegu. Distantziak gure mina biderkatu egin du, eta Estatu espainiar eta frantsesaren lankidekarrengatik Amerikan eta Afrikan barreakiturik dauden beste lagun guztiak kezka handitu egin zituzten gogo bihotzetan.

Algeriako Gobernuak eskertu nahi dugu biziki, gure lagunarekiko izan duen jokabide solidario eta eskuabalarrengatik, hain zuzen bere pertsona larriki mehatxaturik aurkitzen zenean babesa eman baitzuen gobernuak. Fuskal Herri Langileak ez du ahaztuzko jokabide hau eta hola geldituko da idatzirik gure memoria historikoan.

Txomin Iturberen heriotzak azten duen hutsunea nola bete galdegiten diogu geure buruari eta erantzuna begi bistan dago: beste lagun hil eta desagertu guztien hutsunea bete izan dugun bezalaxe, hots, eguneroko burruka indartuz, organizatuz, eta gure berriaren garaipenaren konfiantza jarriaz, Fuskal Nazio Askapenerako prozesuari darizkion ilusio eta alaitasunarekin.

Hauze da gure omenaldiaren lekukotasuna. Fuskal Herri Langilearen aurrean hartu dugun konprometua, hortzez eta, haginez, fuskal errefuxiatu politiko gisa zor zaitzigen eskubideak defendatzeko, hori baita Nazio Askapenerako Fuskal Mugimendunaren aurreratze eta gure eskubide nazional eta sozialak eskuratzeko burrukan geure parte hartzeke molderik hobereana.

Txomin Iturbe, gogoan zaitugu! Errefuxiatuok Euskadin libre bizi behar dugu!

EUSKAL ERREFUXIATU POLITIKOEN
BATZORDEA



Hitz bat, Txomin

Hitz bat esan behar badut, Txomin. Bi hitz eskatzen badizkidazue, Txomin Iturbe. Hiru hitz esan behar badira, Txomin Iturbe Abasolo.

Hitz bat esan behar badut, Iraultzaile. Bi hitz eskatzen badizkidazue, Iraultzaile Euskaldun. Hiru esan behar badira, Iraultzaile Euskaldun Osoa. Txomin Iturbe Abasolo, Iraultzaile Euskaldun Osoa.

Egia da asko daudela iraultzaile euskaldun osoak, baina baita ere egia da Txomin bakarria zela. Herri bat ez da gatazka bakarrean jokatzen, baina pertsona baten galerak sarritan gatazka osoa suposa lezake.

E gaitzen hitzetan gait Fuskadik aurrera egin ahal izateko zailtasunik ez dago, zeren, galera haundiari min haundia dagokiola ukatu gabe, haunditasun horren egintzak hor geratzen bait dira.

Herri baten abioa ez da banaka egiten, baita badira banaka batuz, etorkizunaren gaita soinean daramatela dirudienak. Destinua eta astro gidatzailetariko bat Txomin Iturbe dugu. Fuskal Herriaren historiarik ezin izango da idatzi gure iraultzaile euskaldun oso honi tokitune berezi bat eman gabe.

Euskal Herria esatean, ez ditugu noski herri honen irafikatzen ari diren politikari abertzaleak, barka, «aver-qué-saleak» sartzen. Badikigu nortzukin jo litekeen aurrera eta nortzukin ez dagoen joaten hasierik ere. Herri horretan Txominen heriotza benetan sentitu dutenak sartzen ditugu eta horiek ez dira Herri Batasunaren boto emaleak bakarrik. Horregatik etorkizuna nahitaz Txomin Iturbe ikusten zuten bezalako izango da.

Eta hiri zer esatea nahi duk, ba, Txomin! Har ezak lasai atseden, hilda gero ere agintzen arraituko duk eta.

Xabier AMURIZA



Bere konbikzioak obratu zituen abertzalea

Orain dela hogeiren bat urte ezagutu nuen Txomin Baionan. Momentu hartan Eixaberekin batera bizi zela uste dut. Gero, sarritan bildu ginen Pannecau kalean eta. Gogoan dut ezagutu eta laster, biren batean Eixabek esan zidana: «Ikusiko duk, mutil honetuz, halako batean, jendeak gogotik hitzgingo dik Euskal Herriari».

Mutil haundia zen gorputzez, ederra eta sendoa, abertzale giroko zerbaiz ukitzen zenean, amore ematen ez zuen horietakoa. Hitz gutxi eta hauek ongi pentsatuak eta konbikzioz beteak. Uste eta konbikzioz sendoak zituen Euskal Herriaren askatasunari buruz. «Motell, esan zidan behin baino gehiagotan, orain duk gure ordua, orain lortu behar diugu, nola edo hala, gure herriaren askatasun osoa. Gero Herriari ezarri beharko den programa ekonomiko-soziala gogoan izanik ere, lehen-lehenik Euskal Herriaren askatasuna lortzea

duk gure eginkizuna». Espainiaren eta Frantziaren menpek askatzea zen haren eginkizun behin behinekoa eta, dudarik gabe, behin betikoa.

Konbikzioak ez zitzaion falta behintzat. Beti jruiditu zitzaidan konbikzio hori ez zela haren barruan gauza alferria, alegia hitz soiletan galtzen dena. Azkeneko hogeit urte hauetako Euskal Herriari gertatu dena dateke horren lekukorik onena. Hitz alferretan galdutako gabe bere konbikzioak praktikan jarri nahiz ezagutu nuen beti. Bazekien hesteri eragiten, baina hau eta beste egin behar zenean, beti bera puntan.

Beti harritu ninduen beste honek ere: ez nuen sekula ikusi inor honetara edo hartara behartzen. Baina, jakina, behin zerbaiz buruzteko erabakia har eta, bera aurrena zelarik, beste guztiak erresposabilitate osoa eskatuko zien, txikieria guztiak alde batera utziz.

A. OLARTEGOENA

Txomin hil dela eta

Sekula egin ez dudana deklarazio fantasmagoriko batek diona zuzenduz, nkeze esan nezake nik, arrokeriarik gabe. Txomin betiko nire adiskidea zenik, orain dela hamazazpi urte Belgikatik Iparraldera itzuli arte ez bait nuen ezagutu eta ordurako hiru urtez geroztik utzia bait nuen organizazioa. Hitz batez, kanpotik harik ez dut Txomin tratatu. Eustakio edo Peixoto bezala.

Hori baitetik.

Baina Iparraldeko urteetan apur bat tratatu orduko berehala erreparratu nuen berezko buruzagi hoietakoa zela Txomin. Oso hitz gutxitakoa, bere irizietan arunt irmoa dotorekeria guztien etsai amorratua, ahoa ireki ere gabe biltzen zituen denak bereganatzen. Fuskalduna errotik, baserriko semea bera ere, euskaltzalea osoki, ideia bakar batzutan gidari eta eragile; Euskal Herriaren askatasuna. Eta horretan egon da hil arte.

Desbideraketa ideologikoen garaian ETara sarturik, sekulako mesfidantza gordetzen zuten teoria ederregiekiko. Pragmatiko hutsa, euskara ikusten zuten gure herriaren habe nagusizat. Fuskariak gabe ez dago soberanariarik eta ez kristorik, esaten zuten.

Oraindik ere gogoan ditut Baionako bilera batzuk, Txomin euskara hutsaz mintzatzen zuten bertan eta kitto.

Independentziatik at, era berean, soluziorik ez. Eta independentzia lortzeko gogor egin behar, biziya eman behar da agian, baina bidea hori da: borroka hartuarenean, esaten zuten.

¿Y ahora sin Txomin qué va a pasar? galdetu didate gaur goizean Madriko kazetariak. Eta nire erantzuna hau izan da: Ezar ez. Mila gaztek hartuko dutela Txominen errealitatea, eta borroka aurrera jarraituko duela KAS puntuak lortu arte.

TXILLARDEGI

El último penalty

Tenia el coraje oculto y la sabia entereza del zuardameta habituado a las tensas soledades del juego de los penaltys. Sus reflejos estaban curtiados por el toque de alerta de todos los peligros del área, y en su cuerpo se maraban todavía las trazas y cicatrices del último ataque furtivo con el que habían pretendido eliminarlo definitivamente de los campos de juego.

La soledad de su marco era solamente ficticia. Las gradas estaban con él. Con él vibraban las gentes que vestían sus mismos colores y que sufrían y gozaban con las mismas derrotas, con las mismas victorias. Era un hombre, le club, de solidaridades, de adhesiones

hondas, tejidas a lo largo de una tensa, inabarcable competición en la que las espadas seguían en alto a pesar de lo, teóricamente aplastante, superioridad de los enemigos.

Hasta el final mantuvo la capitania en el campo, que es donde se demuestran las teorías, y su visión certera y elemental contribuyó como ninguna a que nunca se perdiese el rumbo con escaramuzas inútiles o con adornos para la galería, cuando lo que importaba era ganar la partida.

Tenia las manos grandes y el corazón a punto para arrostrar y capear los más malditos pressings, las más brutales ofensivas de unos adversarios que jugaban a favor del

viento y de los árbitros comprados de antemano.

Era uno más del equipo, pero en su brazo lucía el distintivo de su condición. Nunca dio por perdida batalla alguna. Nunca vaciló en sus salidas. Nunca dio un paso atrás en su área.

Era en canchero puro, un guardameta de élite y el último penalty le sorprendió en un lejano campo, demasiado lejano para unos ánimos, para unos aplausos, ahogados por la telaraña de las redes de una portería, ahora vacía.

J. ABIRANETA

Txomin, lehendakari

El mismo día que hemos visto programar el lehendakari de la Euskadi colaboracionista con el ocupante, nos hemos enterado de la desaparición del lehendakari de la Euskadi de la resistencia. De la Euskadi que no se rinde. Pero sabemos todos que Txomin no ha muerto. Está aquí, con nosotros. Es Ardanza quien no existe.

Marc LEGASSE